

BERRIGARA

2. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, abenduak 5

Jose Luis Elkoro

“Delitu barik zigortu naute”

MARKIEGI

autoak

**BIGARREN ESKUKO
AUTOAK**



Leizeaga, 1 (San Lorentzo Industri Poligonoa)
48970 BERGARA (Gipuzkoa) Telefonoa: 76 35 09




GANTXEGI

Telesforo Aranzadi 2
Telefona: 76 00 79

*Emakume eta gizakumeentzako
lentzeria, pijamank eta abar.*

*Gabonetarako
oparirik ederrenak!*



Eperako
aurrekia



**Aurrezkiaren Fruituak
97ko Udazken-Negua**

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Erantzun zuzena



Hormako
erlojua
egurrezko
markoarekin.

175.000 PTA 7 hilerako
275.000 PTA 4 hilerako



Edalontzidun
(1,5 l) Solac
irabiagailua

175.000 PTA 12 hilerako
275.000 PTA 7 hilerako



Fagor lapiko azkarra
(6 litro)
Gasa, Elektr., Vitro., Indukzioa.

275.000 PTA 12 hilerako
450.000 PTA 7 hilerako

Zatoz Euskadiko Kutxara. Berehala jasoko duzu zure aurrezkiaren fruitua. Eta gogoan izan, eragiketa formalizatu eta gero, aukeratutako produktua gustatzen ez bazaizu, beste bat hartu edo eragiketa deusezteko aukera duzula.

Izakinak bukatu arteko eskaintza.

Eskaintza bateratua
525.000 PTA 12 hilerako

Informa zaitez Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan, goizez nahiz arratsaldez.
Edo 901-333 444 telefono zenbakira deitu, gaueko 10ak arte.

BERRIGARA

OTALDE JAUREGIA
 TO Bergara
 16 03 97
 66: 76 29 77

Agintaratzailerak:

OUN Elkartea
 andaria:
 Azkarate
 dakzioa:
 Mendibil
 Elkoroberezibar

Batetazioa:

urbe

Kalitateak:

ona Romero

Agintetza:

Elortza

Ereuen zuzenketak:

Plazaola

Laskurain

Labaian

Agintaratzailerak kontseiluarak:

Elortza

Angel Elkoroberezibar

Labaian

Agintaratzailerak:

Rodriguez

Ortega & Jon Alvarez

Ugalde

Azkarate

Agintaratzailerak:

Antangorri taldea

ada:

70 ale.

Agintaratzailerak:

Koop. Elk. (Zubillaga. Onati)

Agintaratzailerak:

BERRIGARA

Agintaratzailerak:

gordailua:

6391

66:

66399

BERRIGARAK ez du bere gain
 erantzunik adierazitako
 erantzunen erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
 Agintaratzailerak laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Agintaratzailerak Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
 Agintaratzailerak Kulturaren
 laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

JAVIER OZIO


Emaus fundaziokoa

- Zertan datza Kultur Etxean egiten ari zareten "Bidezko merkataritza" izenburuko kanpaina?

- Hirugarren munduko elikagaiak eta eskulanak ezagutzera emateko martxan jarritako kanpaina da. Nekazari eta langileen kooperatiba txikiekin kolaboratzen dugu eta euren produktuak beraien ezarritako prezioan saltzen ditugu hemen, bitartekaririk gabe. Ostirala arte (hilak 5) izango gara Kultur Etxean eta jendeak kafea, txokolatea, Kubako rona edota eskulanak erosi ahal izango ditu.

- Nongo produktuak dira? Zelako erantzuna jaso dute orain arte?

- Nikaragua, Peru, Bolivia, India, Txile, El Sal-



vador eta beste hainbat herrialdeetako produktuak dira. Europa iparraldean hemen baino hedatuago dago praktika hau. Hemengo denda normaletan ezin dira aurkitu, "Bidezko merkataritza" lelopean ez bada. Jasotako erantzuna nahiko ona izan da. Azken batean, guztiak oso kalitate oneko produktu naturalak dira.

"Hirugarren munduko elikagaiak eta eskulanak ezagutzera ematen ditugu"

I T U R R I O N E T I K

Txotxongiloen Nazioarteko Mostraren laugarren edizioa datorren apirilean

Udalak eta Taun-Taunek antolatzen duten Txotxongiloen Nazioarteko Mostraren laugarren edizioa datorren urteko apirilaren 23tik 26ra bitartean izango da. Taun-Taunekoak hasi dira dagoeneko taldeekin harremanetan jartzen eta besteak beste, Argentina, Hungaria, Gales, Japon, India edota Italiako taldeak izango dira gonbidatuak. Fetxa horietan Segovian eta Lleidan antzerako jaialdiak izango direla aprobetxatuz, Bergarara talde onenak ekarri nahi dira.

Guztira 13 ikuskizun izango dira Novedades eta Zabalotegiko aretoetan, Gartzela Zaharrean, Pol-Pol tabernan eta herriko kaleetan.

E S A N
D U T E

"Kostatzen da Jokin Etxaniz binakako txapelketatik kanpo geratu daitekeela sinistea. Jokin udako aurrelaririk onenetakoa izan da. Titinen kontra jokaturako partiduetako batzuk gogoratzekoak izan ziren eta ondoen kotizatutako aurrelariak baino erremate ikusgarriagoa duela erakutsi zuen. Jokinek erremate eta defentsa bikainak dauzka eta beti ere duen guztia ematen du kantxan.

Horrenbesteko hobekuntza izan duen denboraldian txapelketatik kanpo lagatzea injustizia eta huts nabaria ez ezik, orain arte egin dituen baino gauza gehiago egin ditzakeen aurrelari baten progresioa moztuko lukeen kolpe baxua ere izango litzateke. Zurrumurrua kalean egotea, zalantza izatea bakarrik mingarria da. Jokinek tokia dauka irabazita duelako. Serioak izan gaitezen"

FERNANDO BECERRIL
 Kazetaria
 EL DIARIO
 VASCO

**CARA A CARA**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00.

**CARNE TREMULA**

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**POR AMOR A ROSANA**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ Donostiako azken Zine Jaialdian aurkeztu zen **John Woo** zuzendariaren azken filmea. *Archer* (**John Travolta**) FBIko agenteak *Castor Troy* (**Nicolas Cage**) terroristak jarritako arma biologikoa topatu beharko du. Horretarako, zirugia operazio baten bidez, egoera larrian dagoen *Castoren* itxura hartuko du *Archerrek*... Baina *Castor* sendatzean egoerak buelta emango du...

▼▼ **Pedro Almodovar** zuzendari ospetsuaren azken filme honetan **Javier Bardem, Francesca Neri**, edota **Liberto Rabal** aktoreak dira errepartoan. *Victorek* (**Rabal**) ez du suerte haundiegirik izan bizitzan eta *Elena* (**Francesca Neri**) bere lagunaren etxean dagoenean ondorio larriak izango dituen istilu bat gertatuko da bi poliziarekin...

▼▼ *Marcelo* eta *Rosana* senar-emazteak (**Jean Reno** eta **Mercedes Ruehl**) Italiako herri txiki batean bizi dira eta gaisotasun larri bat daukan *Rosanak* bertako kanposantuan lurperatzeko itxaropen bakarra dauka. Zoritxarrez hiru plaza besterik ez dira geratzen bertan... Baina *Rosanak* badauka soluzio bat buruan...

Deiak

▼ **Eusko Alkartasunak** bere afiliatu eta jarraitzaileentzat babajana antolatu du hilaren 20rako. Izen-ematea hilaren 17a baino lehen Alkartetxean (76 26 81).

▼ **1975**ean jaiotako bazkaria hilaren 27an Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Kutxako 0122161672 kontu korrante zenbakian hilaren 22a baino lehen.

▼ **1976**an jaiotako bazkaria hilaren 27an Antxonin. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Antxonin hilaren 25a baino lehen.

▼ **Matinala**. "Liberad a Willy 3. El rescate" domekan 11:30etan.

▼ **Rakel Arenazaren** margoak Nahikari tabernan.

Ogia▼ **Zapatua 6:** Ogizun.▼ **Domeka 7:** Konde.▼ **Astelehena 8:** Mizpildi.**FARMAZIAK**▼ **Eguakitza 5:** Estella.▼ **Zapatua 6:** Mozos.▼ **Domeka 7:** Mozos.▼ **Astelehena 8:** Camacho.▼ **Martitzena 9:** Puy.▼ **Eguaztena 10:** Guallar.▼ **Eguena 11:** Estella.**GURIA****Taberna**

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

MUJIKA U **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Hard-core soinuak

Agnostic Front, gaur, eta Clawfinger, bihar, Jam aretoan

Astebukaera honetarako bi kontzertu iragarri dira Jam aretoan. Alde batetik, gaur, ostirala, arratsaldeko 8etatik aurrera, Agnostic Front taldeak joko du eta berarekin batera Maximum Penalty, Vision, Morning Again eta Redshit taldeak izango dira Jameko eskenatokian.

Bestalde, bihar, larunbata, Clawfinger eta One Minute Silence taldeen txanda izango da.

New York-etik Europara

Agnostic Front taldea 1981ean sortu zen eta New York hiriak emandako hard-core estiloko talderik ezagunenetakoa dugu. Urteak daramatzate han eta hemen kontzertuak eskaintzen, baina Roger Mirst taldeko abeslari eta liderrak esaten duen moduan, *"mitoak ez dira inoiz beltzen, gauzak bere lekuan jartzeko itzultzen dira"*. Mirst bera taldeko sortzailetako bat izan genuen eta berarekin batera Vinny Stigma kitarrajolea, Rob Kabula baxua eta Jimmy Colette bateriajolea izango dira gaur Bergaran. Kontzerturako sarrerak 2.300 pezetan salduko dira gaur Jameko takilan.



Suediatik Clawfinger taldea etorriko zaigu zapatuan Jam aretora.

Europar zehar egiten ari den giraren barruan, Clawfinger talde suediarrek Jam aretoan joko du bihar, zapatua. "Nigger" arrazismoaren kontrako abestiak taldea ezagutzera eman zuen 1991n eta beraien lehendabiziko diskoa ("Deaf Dumb Blind") 1993koa da. Metal eta rap estiloen arteko nahasketa hark *"Suedian inoiz argi-*

taratu den hard rock disko onenaren" izendapena merezi izan zuen eta, besteak beste, urrezko diskoa izan zen Alemania, Noruegan eta Suedian bertan.

1994an Clawfingerrek 55 kontzertu eman zituen Europar zehar eta urte bereko Suediako musika sarietan talderik onena izan zen. Orain bi urte eu-

ren bigarren diskoa plaza-ratu zuten ("Use your brain") eta Zak Tell taldeko partaideak esan zuen moduan, *"leben eta bigarren diskoaren arteko diferentziarik nabarmenena tarte horretan eman ditugun 160 kontzertuak dira. Musiko askoz helduagoak gara orain"*. Musika kritikoez harrera beroa eskeini zioten bigarren lan honi eta milioi erdi kopia inguru saldu zituzten.

Bihar, Bergaran, aurtengo irailean kaleratutako hirugarren diskoa aurkeztuko dute eta suediarrek batera One Minute Silence taldeak joko du. Sarrerak 2.500 pezetan salduko dira.

Musika Eskolakoak Novedadesen

Bestalde, Udazken Kulturalaren programazioaren barruan, Musika Eskolako taldeen kontzertua izango da gaur arratsaldeko zazpi t'erdietatik aurrera Novedadeseko aretoan. Sarrera debaldekoa izango da. Datorren zapatuan, hilak 13, Esteban Landart organujoleak emanaldia eskeiniko du San Pedron 20:00etan.

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Elkar-entzuketa Antzuolan

- Sar naiteke?
- Berriz?
- Bai! Badakin/k herriko elkar-entzuketa taldeak Antzuolako udaletxeke lokala erabiltzeagatik ordaindu behar dabela?
- Nola esan dok/n?
- Bai! Antza, bere eragina ez da ikusten herrian, norberaren onurarako geldituz bakarrik. Gainera, ez omen da kultur talde bat.
- Eta?
- Ba... egoera honek pentsarazi egin doste! Hasteko... kultura ala kulturalak? Zer uste dok/n?
- Kulturak, zalantzarik gabe. Gure kultura suspertu, bai, baina beste lekuetatik datorkigunari entzunez, zabalik.
- Eta zer demontre izango da kultura eta zer ez?
- Esaldi batean erantzungo dotsut: "zenbat eta kontsumorako produktu gehiago, gero eta kultura gutxiago". Cultura de escaparate delakoren garaia da hau. Baina kulturak ez dituk/n salteko eta erosteko produktuak, gizakiok harremantzeko eta komunikatzeko erak eta tresnak baizik. Kulturak gizakion adimenean sormenak dituk/n, gure mundua ulertzeko eta gure ulermena adierazteko erak eta tresnak...
- Beno, beno,... karrera hartu dok! Gaia hiri be interesatzen jatzula ikusten dot.
- Horixe baietz! Eta hik uste dok/n kultura dela elkar-entzuketa?
- Begira: elkar-entzuketa binaka edota taldeka praktikatzen da. Harremana eta komunikazioa dituk/n bere ardatzak. Gure bizitzak aberasten eta indartzen doaz. Eta ez bakarrik gureak! Gure ingurukoena ere bai, gizartean parte hartzeko interesa eta nahia ere indartzen dituk/nelako. Eta gainera dohainik da!
- Beno, ez pasatu! Propaganda egiten zabil-

tzala iruditzen jat. Zuriago garbitzen dabela esaten amaituko dok/n!

- Ez, baina amorru ematen dostet benetan ezagutzen ez dena hain azkar juzgatuz!
- Hire amorruak lagako dotsu entzuten orain-txe bururatu jatena?
- Bota!
- Entzuidan/k: AKE, Arroia, Eskola, Gazte-txea, Guraso elkarte, Idolaz eta beste talde batzuk kultur elkarte bezala agertzen dituk/n. Zalantzarik gabe, euren ekintzek eragina dute herrian. Hala eta guztiz ere, nik nire lehenengo egunetik Antzuolan kultur eragile haundienekin egin dut topo: telebista. 11 urteko neska-mutil batez pentsatzen ari naiz. "Spice girls" musika (?) taldearekin liluraturik eta guztiz identifikatuta...
- Badakik/n... umeen jolasteko gogoia haundia da.
- Bai, ziur baietz, honek ere jolas baten antza dabela. Baina nire uste apalean, honek ere beste gauza bat erakusten dosku: kultur talde horien lan guztia eskertzeko eta ezinbestekoa izanda ere, ez dela nahikoa, egoerak kezagarria izaten jarraitzen dabelako, Estatu Batuetatik ingelesez datorkigun kultura (?) nagusitzen ari jaku eta.
- Orduan, hau erronka polita! Bai horixe! Batzearan eta ez kentzean datza gakoa!

EMILEN CASTRO OTEO

Inposaketarik ez

Larunbat honetan, abenduak 6, beteko dira euskal herritarroi konstituzio espainola inposatu zitzaigunetik 19 urte; inposaketa diogu zeren Hego Euskal Herriak muzin egin baitzion konstituzio espainiarrari, hau da, herri aske bezala bizitzea galeratzen digun konstituzio horri.

Konstituzio espainiarraren itzaletan era ezberdinetako inposaketa jasaten dugu gaur egun

ere; alde batetik hor dugu hizkuntz inposaketa, euskal ikasle guztiok gaztelania jakin beharra dugu, ez horrela gure ama hizkuntza den euskara, honela euskara bigarren maila batera baztertuz.

Beste alde batetik, euskal kultura folklorismo hutsera mugatu nahi dute, euskal ikasleok gurea ez den estatu inperialista baten historia ikastera bultzatu nahi gaituzte (gure herria osatu duten gizon-eme kumeen historia anekdota huts bezala aurkeztuz) eta hori gutxi balitz, irakaskuntzaren bidez balore atzerakoiak inposatzen saiatzen dira.

Hor dugu euskal herritar guztiok oroar eta euskal ikasleok bereziki jasan behar dugun nortasun inposaketa ere. Euskal Herria ez baita esistitzen; honela, behin eta berriz buruan sartu arazten digute Nafarroa, Bizkaia, Lapurdi, Zuberoa, Gipuzkoa eta Araba ez direla Euskal Herria osatzen duten herrialdeak, Euskal Herria zatituta baitago eta herri honen nortasuna ezabatu guraz espainol eta frantses izatea inposatu nahi digute, eta herri honi burujabetza ukatu. Aurreko guzti horretaz gain euskal gazteok indarrez inposatzen zaigun egitura militar bat zerbitzatzera joan behar dugu, intsumiso egiten den gaztea giltzapera eramanaz. Gainera, OTANen egitura militarren barnean egotera behartzen gaituzte Euskal Herria bere garaian honi ere ezezkua eman zitzaion arren. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi euskal gazteok konstituzio honen itzalpean jasaten dugun egoera: etxebizitza propio bat edukitzeko ezintasuna, lanik eza, lan baldintza txarrak, gazte bezala eragiten diguten hainbat erabakitan esku hartu ezina...

Orain 19 urte Hego Euskal Herriak muzin egin zion konstituzio espainiarrari; gaur ere azpian sinatzen dugunok ezetza ematen diogu.

BERGARAKO JARRAI ETA EHE

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



San Antonioko saihesbideko lanak 1999an hasiko dira

Jose Julian Irizar Garraio Diputatuak eta Anxton Jaime errepide zuzendariak, Udaleko ordezkarien laguntzaz, Ormaiztegi-Bergara autobidea eta Bergara ekialdeko saihesbidearen inguruko azalpenak eman zituzten martitzenean prentsaurrean. Irizarrek aurreratu zuenez, Ormaiztegi-Bergara errepideko tramo bat eta Bergara ekialdeko saihesbidearen obrak substara aterako dira 1999an.



Garraio diputatuak bariante berriari buruzko azalpenak eman zituen.

Bonbulutik Labegarietako tejeria bitartean, Bergara ekialdeko saihsbidea San Antonio, Zubiaurre eta Labegarieta atzeko aldetik joango da eta tarte horretan tunel bat izango da.

Oxigenotako bidegurutzearen inguruan pare bat errotonda egingo dira barianteak Arrasateko oraingo errepidearekin bat egiteko. Puntu horretan gidariek bi aukera izango dituzte: errepide zaharretik Epeleraino jarraitu edota Ipiñarri base-riaren inguruan jarriko den peajetik igaro ondoren, Eibar-Gasteiz autopistan sartu. Irizarrek eta Jaimek azaldu zuten, oraingoz bariante horren bi alternatiba daude. Ba-

dirudi Zubiaurre izeneko delat onartuko dena. Alternatiba honek 3.284 milioi pezetako aurrekontua dauka eta bi fasetan egingo da. Anibar izeneko alternatibak San Migel tontorra gainditu ahal izateko tunel luzeago bat egitea suposatuko luke.

Egindako azterketen arabera, Zubiaurre alternatibaren lehen faseak 2023 urtera bitarteko zirkulazio beharrei erantzun- go lieke bi norabideko errepidearekin. Urte horretan edo lehenago erabakiko da, jasotako zirkulazioaren arabera, Zubiaurreko trazatua haunditu edota Anibar alternatiba burutzea (kasu honetan alternatiba bakoitzak bi norabide izango lituzke).

Bestalde, Ormaiztegi-Bergara errepideari dago- kionez, Irizar diputatuak hiru fasetan egingo dela aurreratu zuen: Ormaiztegi-Zumarraga alde bate- tik, Zumarragako bariantea bestetik eta, azkenik, Zumarraga-Bergara tar- tea.

Aurrekontua 13.600 milioi pezeta ingurukoa izango da eta oraindik ez da erabaki zein tramo egingo den lehenengo. Zumarraga eta Bergara bitarteko tramoak, lehen fasean, bi karril izango ditu eta aldapa dagoen zatietan hirugarren bat jarriko da. Dena den, zabaltze hipotetiko bati begira, Diputazioak inguru- ko lurraldeak erreserbatu egingo ditu.

Natibitate eta Eguberri egunetarako Diputazioaren eskaintza

Diputazioak, bakarrik dauden 65 urtez gorakoentzako afaria eta bazkaria antolatu ditu Eguberri eta Natibitate egunetarako. Eguberriko afarira joateko irteera arratsaldeko 18:00etan izango da eta afaria 21:30etan Donostiako Orly hotelean. Afalostean dantza egiteko aukera izango da eta hotelean lo egin ondoren Natibitate egunean bazkaria. Informazio gehiago nahi izanez gero, Bergarako hirugarren adineko egoitzara jo edo 76 21 40 telefonora deitu abenduaren 18a baino lehen.

HILDAKOAK

- Maria Elgarresta Larrañaga**
Azaroak 29, 94 urte.
- Rafaela Beitia Pitarque**
Abenduak 1, 99 urte.
- Luis Molina Igueras**
Abenduak 3, 74 urte.
- Miguel Elortza Goronaeta**
Abenduak 3, 77 urte.

JAIOTAKOAK

- Olatz Diaz Carriet**
Azaroak 21.
- Enara Chimeno Ventades**
Azaroak 23.
- Nerea Odriozola Rodriguez**
Azaroak 26.
- Ander Maitzegi Vidal**
Azaroak 26.

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55



HBren manifestaziora joateko autobusa

Bihar HBk "Bakea behar dugulako, independentzia" lemapean Donostian antolatu duen manifestaziora autobusez joateko izena emateko Arrano tabernara jo beharko da. Bestalde, aste osoan zehar sententziaren aurka azaltzeko manifestazioak antolatu ditu HBk. Astearte gauean Ertzantzak manifestazioa plazatik ez irtetzeko saiakera egin zuen eta manifestari batzuk kolpatu egin zituen. Tentsio une horien ondoren manifestazioak aurrera egin zuen.

Nikaraguari buruzko hitzaldia

Begarako Komite Internazionalistek Nikaraguari buruzko hitzaldia antolatu dute datorren egunean arratsaldeko 19:30etan Kultur Etxean. Hitzaldia aurten Nikaraguan izandako brigadistek emango dute.

Xabier De Zerioaren estudio berria

Xabier De Zerio eskultorearen estudio eta erakustoki berriaren inaugurazio ekitaldia izango da datorren eguakitzean arratsaldeko 19:30etan. Egoitza berria Aranerreka 25ean zabalduko du.

Iparraldeko ikastolen aldeko jaialdia

Iparraldeko ikastolen aldeko jaialdia izango da datorren eguakitzean gaueko 22:30etan Arrasateko Amaia antzokian "Abbadiaren izarra" ikuskizuna eskainiko da da. Sarrerak takilan 1.500 PTA balio ditu eta aurrez Jardun elkartean eros daitezke 1.300 PTAREN truke.



Torunsako enpresa komiteoek prentsurrekoa eskaini zuten astelehenean.

Torunsako planta berriari buruzko informazio eza salatu sindikatuek

"BERRIGARAREN bidez enteratu gara Hendaian plantaz"

Torunsa lantegiko enpresa komiteak prentsurrekoa eskaini zuen joan zen astelehenean ELAREN egoitzan enpresaren zuzendaritzak Hendaian egin nahi duen lantegi berriaren aurkako jarrera azaltzeko.

ELAK, CCOO eta UGTk osatzen duten enpresa komiteak Torunsako zuzendaritzaren gardentasun falta salatu zuten. "Komiteoak BERRIGARAREN bitartez enteratu gara Hendaian lantegi berri bat egin nahi dutela. Gaiari buruzko informazioa jasotzeko bilerak egitea eskatu diogu bi aldiz zuzendaritzari eta ez dugu erantzunik jaso" adierazi zuten. Era berean enpresako zuzendaritzari langileekin dituzten harremanak gaurkotzea eta legalitatea errespetatzea eskatu zioten: "gaur egun lantegi bat latigoare-

kin eramatea, oso erru handia da" esan zuten komiteko kideek.

Torunsak Hendaian eraiki nahi duen lantegiarekin ez daude ados Begarako lantegiko langileen ordezkariak: "Torunsa Begarako langileen esfortzuarekin ere egin da eta etorkizuneko begararrek ere bertan lan egiteko aukera izan behar dute. Begarako gazteen artean dagoen langabeziarekin ez da zilegi 30 lanpostu kanpora eramatea".

Sindikatuek Torunsan izan den langile kopuru jaitsiera eta ordu estrak gehiegizkoak direla salatu zuten. "Duela 4 urte Torunsan 124 langile zeuden eta orain 98 daude. Sail batzuek ordu estrei esker funtzionatzen dute eta egunero 2 edo 3 ordu gehiago sartzen dituztenak badira".

Kizkur
ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA
 Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak
 ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
 ORDUTEGI BERRIA:
 8.00-13.00 ETA 15.00-20.00
 ☎ 76 19 54 BERGARA
 IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

Bariantean istripuak sahiesteko neurriak eskatu ditu Udalak

Bergarako Udalak Benta Berri baserriaren aurrean dagoen bidegurutzeko seinalizazioa aldatzeko eskatu dio Diputazioari. Izan ere Ibarrik bariantera sartzen diren autoek bariantetik datozen autoak ikusteko arazoak dituzte isletetan daudden zutiko seinalizazioengatik. "Seinale horiek ikuspenera oztopenen dute oso altuak direlako eta gure proposamena seinaleak mendi kontran jartzeko izango litzateke" adierazi digu Alfonso Alonso Udaltzainburuak. Ertzantzak egindako txosten baten arabera bidegurutze horretan azkenengo 3 urteetan 24 istripu izan dira toki horretan, bertan 33 auto eta 4 kamioi izan dira tartean. Guztira 14 zauritu

izan dira, horietatik 9 arinak eta 5 larriak. Bariantearen beste puntu arriskutsu bat Ipintza institutuaren eta kanpoko igerilekuen parean dagoen bihurgunea da. Toki horretan azkenengo 3 urteetan 25 istripu izan dira, bi zauritu larri eta 5 arin suertatu direlarik. "Bihurgune horretan bisibilitate falta dago eta neguan izotza ere izaten da. Orain arte ez da ezer larririk gertatu, baina behean kanpoko igerilekuak daude eta kamioiren bat jausten bada, zerbait larria pasatu daiteke. Arazoa konpontzeko ez dugu proposamen konkreturik egin, baina Diputazioari konponketaren bat eskatzen diogu" dio Alonsok.

Seminarioko kupula konpontzeko egitura metalikoa

Seminarioko kupula jarri zuten joan zen eguasten arratsaldean. Lana benetan ikusgarria izan zen 4 tona inguru pisatzen duen egitura metalikoa jartzeko grua erraldoia izan baitzen San Martin plazan. Egitura hori jarri ondoren, kupula estali egingo dute eta Udaleko hirigintza teknikariek adierazi digutenez urtarrilerako kupularen konponketa lanak bukatuta izango dira.



Eguastenean jarri zuten egitura metaliko berria.

LAB sindikatuaren egoitza berria

LAB sindikatuak lokala aldatuko du eta hemendik aurrera Ibargarai kaleko 39. zenbakian dagoen lokalean eskainiko die zerbitzua afiliatu eta langile guztiei arratsaldeko 15:00etatik 19:00etara. Asteleheneretan, berriz, kontsultak pasatzeko eguna izango dela adierazi dute LABekoek. Telefono zenbaki berria 76 01 89 da eta faxarena 76 42 74.

Autoestimari buruzko hitzaldia

Datorren egunean arratsaldeko 17:30etan "Autoestimaren garrantzia"ri buruzko hitzaldia antolatu du San Joxepe elkarteak jubilatuen egoitzan. Hitzaldia Mercedes Acera psikologoak emango du eta herri guztiarentzat atek zabalik dituztela esan digute antolatzaileek.

Kapirixo elkartearen batzar orokorra

Kapirixo elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen joan zen astean. Urteko iharduera onartu ondoren, presidente aldaketa egin zuten eta datozen bi urteetan Xabier Larrañagak hartuko du lehendakari kargua.

Opel Corsa baten zozketa

Bedelkarrek, Bergarako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak, Opel Corsa bat zozketatuko du Errege bezperako Niñoko loteriarekin batera. Bedelkarreko dendetan erosketak egiten dituztenen artean txartelak banatuko dira.

PANA DE ROKUA
TATETXEAL

Kontxi Idigoras

Asteburuetan bertako babak eta sabieskia

SALBADOR, 10 ELGETA Tlf. 76 82 73

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA

☎ 76 13 35

Jose Luis Elkoro

“Oso garbi daukat ez dudala delitua izan daitekeen ezer egin”

Auzitegi Gorenak Herri Batasunaren Mahai Nazionalaren sententzia kaleratu ondorengo egunean, martitzenean, izan ginen berbetan Jose Luis Elkororekin espexera eramango duen epaiketari buruz.

Auzitegi Gorenak amandako sententziaren zer balorazio egiten duzu?

- Garbi dago sententzia politikoa izan dela eta guk hori garbi ikusi dugu. Epaiketarik izan ez balitz, jende asko zalantzan geratuko zen errudunak ginen ala ez; baina, gu zapaltzeko asmoarekin antolatutako epaiketak, zorionez, erakutsi du ez ginela errudunak. Gure abokatuek oso lan sakona eta ona egin dute. Defentsaren arlo ezberdinak oso landuta eraman dituzte eta akusazioa hitz barik laga dute. Azkenean, akusazioko abokatu batzuk etorri ere ez ziren egiten epaiketara, ezin zezaketelako erantzun. Epaiketa batean, akusazioaren eta defentsaren artean eztabaida sortzea normala izaten da; epaiketa honetan ez da horrelakorik izan, eta akusazioak ez du ezer egin, ez baitzuen erantzuteko arrazoirik.

- Horrek ez dizue kezkarik eragin?

- Bai, epaiketan zehar gure abokatuek aipatu


izan dute arduratzekoa zela akusazioaren jarrera, zeren ez zuten erantzuten, ez zuten argumenturik erabiltzen; labur esanda, ez zuten ezer prestatuta. Antzematen genuen akusazioko abokatuek ahalik eta denbora gutxien pasatzera joanak zirela eta aurretik bazekitela epaileek emango zuten sententzia. Epaiketa bukatu zenean garbi ikusi

genuen ez genuela deliturik; semiotikako adituek argi laga zuten bideoan ez zela delitu izan zitekeen irudirik erakusten. Semiotikako bost aditu eraman genituen, lau EHUKo irakasleak eta beste bat TVEko langile bat, susmorik sortuko ez zuena, eta guztiak bat etorri ziren bideoak deliturik ez zeukala esaterakoan. Hori kontrastatzeko, akusazioaren

aldetik ez zen ezer egin; beraz, guztiondako garbi geratu zen aditu horiek esandakoa, ez baitzen aurkako iritzirik azaldu. Garbi geratu zen bideoak ez zeukala deliturik.

- Bideoa ematearen erantzukizuna ez zela Mahai Nazionaleko kide guztiena izan aipatu duzue.

- Epaiketan frogatuta geratu zen bideoa zabal-



“30 urte daramagu borrokan. Horrelako erabakiek erakusten dute Orejak ez duela arazoa konpondu nahi.”


tzeko erabakia hartu zen bileran ez ginela denok egon eta egon ziren guztiek ez zutela baietza eman. Orduan, epaileek ez dakite ni egon nintzen ala ez. Egon banintz ere, ez dakite erabaki horren alde edo aurka nengoen. Hori ez badakite, zela jotzen naute errudun? Ez dakite baiezkoa ala ezezkoa eman nuen eta, hala eta guztiz ere, errudun naizela esan dute. Garbi dago politikoez baldintzatu dutela epaileek hartu duten erabakia.

- Interes politikorik somatzen duzu epaileen atzean?

- Mayor Orejak bere diskurtsoan erakusten dituenak. Mayor Orejaren zat ezker abertzalea deabru da, pentsatzen du deabru horrekin bukatzen badu, bere politika aurrera eramateko erraztasun gehiago izango duela. Gero, Espainiako komunikabide guztiek Euskal Herriaren aurkako giroa sortzea lortu dute eta, batez ere, ezker abertzalearen aurkakoa. Kanpaina horrek botoak ematen ditu eta orain kanpaina horren fruituak batzen ari dira. Mayor Orejari politika horrek botoak ematen dizkio, oso gustora dago horrelako erabakiekin, azken batean, boto gehiago jasotzen dituelako.

- Bizi dugun gatazka kontutan hartuta, zer ondorio ekarri ditzake politika horrek?

- 30 urte daramatzagu borrokan eta tentsioan, eta horrelako erabakiek erakusten dute politikoriek ez dutela arazoa konpondu nahi. Benetako estadistek epe luzera jokatzeko dute. Mayor Oreja, oster, epe motzera jokatzeko dute. Horre-



Elkororen ustez PPK konponbiderako bide guztiak moztu ditu.

gatik, PSOEren azkenengo garaian hasita zegoen prozesua moztu egin dute, Perez Esquivelen bitartekaritzarena hain zuzen. Prozesu horretan, nik neuk ere parte hartu nuen eta Perez Esquivelen eta Gobernuko ordezkariak elkarrizketak izan zituzten. Helburua, Gobernuaren ETArekin harremanetan jarri eta konponbide bat bilatzeko zuzenean elkarrizketak izatea zen. PPKoak heldu zirenean bide hori itxi egin zuten eta, bestalde, errepresioa gogortu egin zuten; horren ondorioz, Euskal Herriko giroa miakatzeko ari da.

- Lehen ere egin zenituen ETA eta Gobernuaren artean bitartekari lanak.

- Bai, nire bizimodu politikoan horrelakoak behin baino gehiagotan egin ditut. Suarez eta ETArekin mezu bat pertsonalki eraman nion, baita Martin Villari ere; harrezkero, PSOEko gobernuko beste kide batzuei ere bai. Azkenengo aldiz Perez Esquiveli ETArekin bi mezu neuk eman nizkion Gobernuari emateko. Beste mezu mota batzuk izan dira, baina mezuak dira. Batzuk idatzizkoak dira, beste batzuk hitzezkoak eta beste batzuk ikuste-

koak; baina, azken finean, guztiak dira ETArekin mezuak eta batzuek ez daukate deliturik eta beste batzuek bai. Hor izugarriko kontraesana dago.

- Espero zenuten epaileek fiskalak eskatutakoarekin bat egingo zutela?

- Ez. Halere, Mayor Orejak, Yustek, Esperanza Agirrek eta beste politikoriek batzuek epailetan inguruan egin dituzten adierazpenek erakutsi dute gogo handia zegoela Mahai Nazionala zigortzeko. Beti izan dugu zigor bat jasotzeko beldurra, baina ez genuen pentsatzen hain gogorra izango zenik. Pentsatzen genuen 4 edo 5 urte izango zirela, azken albisteez 6 urte izango zirela esaten zuten... Nik oso garbi daukat ez dudala ezer egin delitua izan daitekeenik. Ez da egongo ez epailetan ez beste inor niri deliturik leporatuko didanik. Oso garbi daukat deliturik egin barik zigortu nautila.

- Komunikabide askok zuen defentsak egingako lan ona azpimarratu zuten. Zela ulertzen da, orduan, hain zigor handia jaso izana?

- Komunikabideena benetan lotsagarria da. Komunikabideek euren askatasuna galdu egin dute. Ez dakit ezker abertzalearen edo Euskal Herriko arazoei tratamendu ezberdina emateko agindua ez ote daukaten eta hori betetzen duten. Epaketarekin egin duten kanpaina lotsagarria izan

“Epaiketa batean akusazioaren eta defentsaren artean eztabaida sortzea normala izaten da; epaiketa honetan ez da horrelakorik izan”

da. Epaiketa hasi aurretik komunikabideek uste zuten astakeriak egitera joango ginela eta basati batzuk ginela pentsatzen zuten. Ondoren, ustekabe handia jaso dute. Hasi aurretik sekulako oihartzuna eman zioten epaiketari gu zapaltzeko. Baina ikusi zutenean prozesua oso serio zihola eta gure abokatuak lan ona egiten ari zirela, berehala isildu zuten. Adierazgarria da Matti Iturralkdek egin zituen adierazpen batzuek komunikabideetan izan

izendatuenetako bati Patxi Zabaletak eta biok entzun geniona. Kazetariak zioenez, gaur egun Francoren garaian baino okerrago gaude. Francok dirua ematen ei zuen nahi zituen albisteak zabaltzeko edo aldatzeko, kazetariak erosten zituen. Orain, ordea, kazetari guztiak artalde baten moduan joaten dira Mayor Orejarengana eta, gero, komunikabide guztietan tratamendu bera ematen dizkiete albisteei. Francoren garaian hori ez zen

- Nazioarteko komunikabideen jarrera bestelakoa izan da?

- France Pressek epaiketa osoa jarraitu du eta mundu guztian zehar informazio objetiboa banatu du. Horrek espainolak hasarretu egin ditu eta Abel Matutesek, esate baterako, salaketak egin zituen Frantzian. Italian ere arazoak izan dituzte eta Portugalen beste horrenbeste. Argi dago espainolei ez zaiela gustatu epaiketari buruzko informazioa nazioartean zabaltzea.

- Hemen tentsioan bizitara eta sententzia honek ez du ezer konponduko. Orain 23 pertsona goaz espetxera eta gure inguruko jendea amorratuta dago. Arrazoi barik espetxera goazela ikusi dute eta horrek amorratu eragin dio jendeari. Gure inguruan gutxi gorabehera 200.000 boto daude. Horien inguruan beste jende mota bat dago eta horrek euskal gizartearen pisua dauka. Euskal Herrian nabaritu egin behar da hori. Dozena erdi izango bagina, ez litzateke nabaritu, baina sententziak ia miloi erdiko kolektiboari egin dio min. Hori azaldu egiten da nolabait. Batzuk moderatuagoak izango dira eta beste batzuk zakarragoak. Probokazio bat izan da. Gu kartzelan isilik egon beharko gara; baina gizartea zirikatu egin dute. Probokazioa dagoenean jendeak erantzun egiten du eta hemen erantzuna egongo da.

- Jonan Fernandezek epaiaren atzetik betiko "esku beltza" dagoela adierazi du. Tesi horrekin ados zaude?

- Esku beltza PP da. Konponbiderako bide guztiak moztu egin ditu. Antxon Santo Domingotik ekarri zuten eta orain pakea lortzeko sortu diren saiakerak moztu egin dituzte.

- PPK irtenbide politikialak ikusten ditu bakarrik?

- Orain egiten ari den jokoa behintzat hori da. Pentsatzen dut noizbait aldatuko dutela, ez dut



"Autodeterminazio eskubidea ematen badigute eta lurraldetasuna errespetatzen bada, pakea izango dugu."

zuten tratamendua. Mattik zera esan zuen: "gure aurkako epaia irtetzen bada, arduratu egingo gara, Euskal Herriko giroa okertu egingo baita" eta komunikabide guztiek adierazpenok mehatxua zirela esan zuten.

Honen inguruan merezi du kontatzea epaiketan izandako Espainiako egunkari bateko kazetari

gertatzen". Epaiketa eguna bukatzen zenean kazetariak akusazioko abokatuekin elkartzen ziren eta hurrengo egunean egunkari guztiek albiste bera ateratzen zuten.

- Asteleheneko prentsaurrekoan sententziak gatazka areagotu egingo duela aipatu zuen Floren Aozek. Horrekin zer esan nahi zuen?

"Jendeari adierazi behar zaio arrisku egoeran gaudela eta posizioak gogortzen ari direla eta horri erantzuna eman behar zaio"

uste tuntunak izango direnik. Baina badirudi orain hori interesatzen zaiela eta ez zaiela hemengo egoeraren larritasuna inporta. PNV ere aipatu behar da PPrekin gobernatzeko ari baita. Badirudi PNVk ez daukala zerikusirik, baina PNVren oniritzirik gabe ez dut uste erabaki hori hartuko zutenik. Ez dut esaten PNV erabakiaren subjeto aktiboa izan denik, baina bai babesa eta kobertura eman diela.

- Zer helbururekin antolatuko duzue 15eko greba orokorra?

- Gizarteari helaraztea hemen errepresio giroa dagoela. Ez gure kasuan bakarrik, ikusi besterik ez dago espetxeetan zer pasatzen den, detentatuak...; giroa gogortzen ari da. Errepresioari aurre egitea da gure helburua. Jendea adierazi behar zaio arrisku egoeran gaudela eta posizioak gogortzen ari direla eta horri erantzuna eman behar zaio.

- Alternatiba Demokratikoak zer eskaintzen dio euskal gizarteari?

- Nahiko nuke horrelako proposamena bestearen batek egitea. Proposamenak esaten du autodeterminazio eskubidea inork ez digula kendu edo eman behar. Hori geurea da eta errespetatu egin behar da. Eskubide hori errespetatu ondoren, gizarteak berak aukeratu behar du aurrera bidea nolako izan behar den. Hori Telesforo Monzonek oso garbi esaten zuen: "Maltzagaraino denok batera". Horrek esan nahi du euskaldunok lehenengo Euskal Herria egin behar dugula eta gero kolore batekoa edo bestekoa izango dela. Gero gizarte-

"Nire bizitzaren azkenengo etapa, politiko eta langile moduan, espetxean pasatzea badakit mingarria izango dela baina ohore bat da"

ak esango du zer motatako herria nahi duen eta kanpokoekin zer nolako hartu-emanak izan nahi dituen.

- Autodeterminazio eskubidea aitortuko balitz, gatazka bukatuko litzateke?

- Ziur nago autodeterminazio eskubidea ematen badigute, eta lurraldetasuna errespetatzen bada, pakea izango dugula. Autodeterminazio eskubidea edukitzeak eta erabiltzeak zer kalte egiten die espainolei?. Duela 25 urte autonomia hitza Espainian erabiltzea ia pro-

bokaziotzat hartzen zen eta orain herri guztiek dute autonomia. Hemenetik urte batzuetara, ziur, autodeterminazioa eskatuko dute eta hori zeinen kaltetan doa?

- Zein izan da politikan daramazun urteetan zure erronka nagusia?

- 25 urte daramatzat Euskal Herriaren bakearen eta hemengo nortasunaren alde borrokatzen. Orain arrazoi horregatik espetxeratzea niretzat ohore bat da. Nire bizitzaren azkenengo etapa, bai politiko eta bai langi-

le moduan, espetxean pasatzea badakit mingarria izango dela, baina niretzat ohore bat da. Nire helburua hori izan da eta helburu horregatik espetxeratu naute.

- Une honetan zer moduz zaude?

- Nahiko ondo, zigorra oso gogorra izan arren. Pasatzen dena da luzarotik sinisten nuela hau pasatu zitekeela eta barnerratu egin dudala hori. Bestalde, lau seme-alaba ditut eta ideologikoki sintonian gaude. Horrek laguntza ematen digu horrelako eraso bat gainditzeko.

"Hainbeste nahi dugun bakea"

Jose Luis Elkororen iharduera oso lotuta dago Bergararen azkenengo 25 urteetako gizarte, kultura eta politika arloko bizitzarekin. 1970eko hamarkadaren lehenengo urteetan Alkartu Nai elkarteak sortu zuen herrian hainbat iharduera bultzatzeko, beste bergarar batzuekin batera. Elkarte horren eskutik etorri ziren, besteak beste, jubilatuen lehenengo egoitza, Arans-Gi gorren eskola edota haurrendako hainbat iharduera. 1974an Udaleko zinegotzi izendatu zuten eta 1976an Bergarako alkate izan zen lehenengo aldiz, Euskal Herriko alkateen mugimenduko bultzatzaileetako bat izan zelarik. 1987ko udal hauteskundeetan Bergarako alkate aukeratua izan zen. Gipuzkoako Batzarretako kide izan da lau legegalditan eta Gasteizko legebiltzarkide bi legegalditan; HBko senatorea izan zen Madrilen legegaldi batean. Herri Batasunako Mahai Nazionaleko 23 kideetatik zaharrena da (63 urte ditu) eta HBren sortzaileetako bat izan zen.

Elkororen beste aspektu azpimarragarria enpresa gizonarena da. 1965ean Elay enpresa sortu zuen Antzuolan eta ordutik

hazkuntza handia ezagutu du. Elay taldearen barruan beste lau enpresa biltzen dira gaur egun: Seitra, Trokelay, Elay industrial eta Balzers Elay. Nagusiki kotxeendako piezak egiten dituzte. Elay taldean 270 lagun dabilta lanean; gehienak Antzuola eta Bergarakoak dira. Joan zen urtean 5.500 miloi pezeta baino gehiago fakturatu zuten eta Europa, Asia eta Amerikara saltzen dituzte euren produktuak.

Jose Luis Elkorori eguenean jakinarazi behar zioten noiz joan behar duen gartzelara (seguruaren astebukaera honetan espetxeratuko dute). Zigorra zer gartzelatan bete aukeratzeko eskubidea emango ziotela jakinarazi zioten eta berak esan digunez, Martutene aukeratu du.

Elkarrizketa joan zen martxoan Bruselasetik bidali zuen mezuaren zati batekin bukatzea eskatu digu. Honela dio: "Gure askatasun nahia errepresioz suntsitu beharrean, askatasuna berreskuratzen lagundu behar digute. Gure askatasuna berramatzea bake bidea jorratzea delako. Pakea beraiendako eta guretako. Hainbeste nahi eta behar dugun pakea".

Knut Rauchfuss

Alemaniko PDS alderdikoa

Komite Internazionalistak taldearen eskutik, Knut Rauchfuss Alemaniako PDSko (Sozialismo Demokratikoaren Alderdia) kideak Kurdistango egoerari buruz jardun zuen martitzenean Kultur Etxean. Bere ustez, Europako herrialdeen esku daiteke Turkia eta kurdoen arteko konfliktoaren soluzioa.

- Zelako lotura daukazu kurdoekin?

- 1960 eta 70eko hamarkadetan turkiar mordo bat etorri zen Alemaniara lanera, baina ez genuen kurdoen berririk izan 80ko hamarkadaren erdialderarte, Turkian 80an izandako kolpe militarren ondorioz, errefuxiatu politiko dexente etorri baitzen Alemaniara. Beraiei esker, ezkertiaren kontrako errepresioaz gain, Turkian kurdoen kontrako errepresio etnikoa dagoela jakin ahal izan genuen. Alemanian 500.000 kurdo inguru bizi dira, baina horrek ez du esan nahi gure herrialdeak ongi hartzen dituenik. Alemanian ere badago kurdoen kontrako erre-

presioa eta askotan gaurko moduko hitzaldi batean zerbitzu sekretuetako jendea egoten da esaten duzuna kontrolatzeko.

- Turkiarren eta kurdoen arteko harremana zelakoa da Alemanian?

- Alemanian ere aurki daiteke Turkian ematen den dibertsitatea; badira kurdoei erasotzen dieten turkiar faszistak eta baita faszista horien instituzioei aurre egiten dieten kurdoak ere. Alemanian 2.000 bat turkiar daude; horien artean badira inmigranteen 2. edo 3. belaunaldikoak direnak eta hauek, nahiz eta turkiarrrak izan, kurdoen alboan borrokatzen dute. Ni adibidez, turkiar emakume batekin ezkondu nago eta biok ere kurdoen alde borrokatzen dugu.

- Zein da zure zeregina auzi honetan?

- Nire alderdiaren barruan nazioarteko solidaritateaz arduratzen naiz eta azkenaldian kurdoen aldeko kanpainak egin ditugu. Kurdistango egoeraren berri emateko nazioarteko konferentziak antolatu ditugu, pakearen aldeko negoziatioak bul-



Turkiarren eta kurdoen arteko gatazkari buruz mintzatu zen Rauchfuss.

tzatu ditugu eta behin kurdoen eskakizunak zeintzuk diren argi eta garbi azaldu ondoren, "Pakearen tren" antolatu genuen beste hainbat elkarteren laguntzarekin. Turkiako gobernuari zein europear gobernuari pake negoziatioen beharra azpimarratu nahi genien. Kurdistanen askatasunaren aldeko PKK alderdia negoziatzeko prest azaldu bada ere, Turkiako gobernuak ez du jarrera bera azaldu eta han izan ginenean ere modu txarrez hartu gintuzten. Komunikabide guztiek eman zuten han gertatutakoaren berri eta bistan geratu zen pakea hitzarekin baldin bazoaz, gobernu eta militar turkiarren sentsibilitatea ikutzen duzula.

- Zein da Kurdistango egoera gaur egun?

- Gobernu turkiarrak kurdoen 3.500 bat herrialde suntsitu ditu, erretako lurralde asko dago eta egoera honen aurrean jendeak hiru aukera ditu: gerrilan sartzea, lurralde horietatik irten eta errefu-

xiatua izatea edota Europara etortzea errefuxiatu politiko modura. Jende bat gerrilan sartzen da turkiar gobernuari aurre egiteko. Beren biktimen buruak erakusten ari diren, turkiar soldaduen argazkiak ditugu. Eta guzti hori Alemaniako gobernuak saldu edota oparitutako armekin edota Europar Batasuneko herrialdeen laguntzarekin egiten dute.

- Zein izan daiteke gatazkaren soluzioa?

- Soluzio militarrik ez dago. Gerrila gogor ari da eta nahiz eta Turkiako ejerzitoa OTANeko bigarren haundiena izan, ez daki kurdoek menderatzen duten mendian mugitzen. Turkiar ejerzitoak ezin izango luke mantentzea gerra egoera europar laguntzarik gabe eta, beraz, gure gobernuak presionatu behar ditugu laguntza hori ez bidaltzeko. Horrela amaitu egin liteke Kurdistango gerra. Eta ez bakarrik hori, kurdoek duintasunez, pakean eta bizi baldintza egokietan bizitzea lortu behar dugu.

“Kurdoek duintasunez, bizi baldintza egokietan eta pakean bizitzea lortu behar dugu”

kontuola...

Antzuolako hamabostekaria. 7 zenbakia, 1997-12-5

Euskararen erabileraren alde apustua

Bi urte dira Udalean euskara bultzatzeko plana martxan jarri zela

1995eko maiatzean jarri zen martxan Antzuolako Udalean AEBE (Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz) plana. Hiru urteko iraupena duen plan piloto hau Antzuola eta Bergarako udaletan dago martxan eta helburu nagusia hau da: Udalaren barruko nahiz kanpoko harremanetan euskararen erabilera gehitzea.

Eusko Jaurlearitzak plan piloto hori Antzuolan ezartzeko kontuan hartu zituen irizpideetako batzuk hauek dira: langile gehienak hizkuntz maila egokia izatea eta Udalak Euskara Zerbitzua izatea. Lierni Legorburu, Euskara Zerbitzuko teknikariak adierazi digunez, "euskara jakitetik modu ulergarrian erabiltzeko beharrezko urratsak ematea da planarekin bideratu nahi dena".

Plana martxan jarri zenean aurreikusitako baliabideen artean komunikazio-zirkulua da eragin nabarmenena izan duena. Izen hori eman zaio langileek hamabostean behin, eguakitzetan, egiten dituzten bilerei. Bertan eguneroko lanean euskararen erabileraren inguruan sortzen diren arazoak identifikatu eta proposamenak bideratzen saiatzen dira. Lierniren esanetan, "helburuak lorgarriak izan behar dute eta, gainera, kontuan hartu behar da aztertzen dihardugun gaiak zer eragin duen bai Udalaren barruan eta baita kanpoan ere".

Euskaraz gero eta alor gehiagotan

Bi urte pasatxo bete dituen planaren bidez, gero eta gauza gehiago bideratzen dituzte euskaraz: artxibo admi-



Komunikazio zirkuluaren bileratako bat.

nistratiboa, programa informatikoak, hirigintzako proiektuak... Udalak lanen bat eskatu behar duenean, hizkuntz eraginaren arabera jokaten du, eta orain arte oso gutxi landutako alorretan euskara eskatzen hasi dira. Hala ere, Liernik esan digunez, "lana pixkanaka-pixkanaka egitekoa da; lorpenak izan badira ere, oraindik lanerako oinarritzko material asko gaztelaniaz dagoelako, legeak eta kontsulta-liburuak esaterako".

Herritarren partehartzea

Udalak herritarren partehartzea beharrezkotzat jotzen du. Helburu horrekin abenduan triptiko bat kaleratuko du, herritarrei proposamen eta eskaera zehatzak egiteko, hala nola euskararen erabilera zabaltzea eta sortzen diren testuen txukuntasuna eta ulergarritasuna bermatzea. Horretarako Euskara Zerbitzuen laguntza eskainiko du.

Asko aurreratu bada ere, oraindik lanerako oinarritzko material asko gaztelaniaz dago

Independentzia eguna



Patxi Olabarria

Datorren eguakitzean beteko dira 368 urte Antzuolak Bergararekiko independentzia lortu zuela, 1629. urtean. Abenduaren 12a egun handia da antzuolar

guztiantzat, baita herritik ehundaka kilometrotara gaudenontzat ere. Herriarekin ditugun loturak apurtu nahian atera gintuzten Antzuolatik, baina ez dute beraien helburua lortu; ni behintzat inoiz baino antzuolarrago sentitzen naiz. Hau egia dela ikusteko, galdetu Alkala-Mekon dagoen edonori ea Bergara edo Urretxu non dauden eta ziurrenik ez du asmatuko; hori bai, Antzuola ondoan daudela esanez gero laister jakingo du non dauden.

Urtean zehar Antzuolan ez da jai askorik egiten, hori dela eta, edarra izango litzateke Antzuolaren Independentzia Egun hau herritar guztion jai eguna bihurtzea. Beraz, animo eta festara! Guk aurten etxetik urruti ospatuko dugu, baina ea datorren urtean Euskal Herrian ospatzen dugun.

Bukatzeke Kontuola zorientzarekin bat, kritikaxo bat egin nahiko nioke. Nire ustez bergararrak pozik egongo dira beraien astekaritan Antzuola Bergarako auzo bat izango balitz bezala azaltzen delako. Kontuola gu bezala preso dagoela iruditzen zait eta uste dut Antzuolak baduela ahalmena bere herri aldizkari propioa izateko. Kontuola askatu!!

Nor da Shakespeare gutxi gora-behera?



W.Shakespeare Tanttakakoen begietan.

Shakespeare osoa (gutxi gora-behera) izeneko antzezlan eskainiko du Tanttaka antzerki taldeak abenduaren 13an. Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Niko Lizeagak antzezten dute Tanttakaren azken lana. Jaun eta Jabe, Benta-Berri eta Goenkale telesailetan aritzeagatik ezagunak diren aktoreek, idazle ingelesaren lanaren antologia berezia egin nahi izan dute. Eurek diotenez "gure pertsonaiek Stratfordeko adituaz dakitena azaldu nahi diete ikusleei".

Patxi Barcoren zuzendaritzapean, Adam Long, Daniel Singer eta Jess Winfielden moldaketa egiten dute aktoreek. Antzeppen honetan, William Shakespearen goi mailako kalitatea ezagutarazteko argitaletxe bat sortzea erabakitzen dute eta ordu eta erdian umorea izango

da nagusi eskenatokian. Aktoreen hitzetan "barre egitekoa da eta egundoko erritmoa dauka".

Datorren zapatuan, abenduak 13, izango dira herrian euren azken lana aurkezten. Zine aretoan izango da saioa 22:30etatik aurrera. Sarrerak aurrez salgai egongo dira.

Mendian seguru ibiltzeko ikastaroa

Segurtasunak abentura bere osotasunean bizitzeko aukera ematen duelako, Arrolak "Autobesa mendian" ikastaroa antolatuko du. Saioak abenduaren 11n eta 18an izango dira 18:30etan zi-

ne-aretoan eta "mendian seguru ibiltzeko oinarriko arauak buruz jardungo da". Ikastaroa dohainik izango da eta otsail aldera praktikan ipintzeko aukera eskainiko dute Arrolakoek.

Bestalde, abenduaren 9an eta 12an, mendigoizaleek federatu lizentzia berritzeko aukera izango dute. Berrikuntza modura mendizaleei Euskal Federazioan sartzeko aukera eskainiko zaie. Hala ere, mendizale bakoitzak berak ikusiko du Euskal Herrikoa edo FED-MEren (Federación Española de Montaña) lizentzia eskuratu; baina Arrolakoek adierazi digutenez, "Pirinioetarako irteeretan ezinbestekoa izango da federatua egotea". Interesatuok Arrola bertara joan daitezke datorren asteko martitzen edo eguakitzean, 19:00etatik 20:00tara.

LARREA

TABERNA

Kalebarren, 17
ANTZUOLA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

GOROSTI

Taberna

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA

Haurren jolasei buruzko hitzaldia

Umeentzako jolas egokia hautatzea ez da lan makala izaten. Askotan haurren gustukoa barik, gurasoen gustura hautatzen dira jolasak. Baina nola jakin jolas egokiena hautatzen? Kezka horrek eraginda, eta Gabonak gainean ditugula ikusita, jolasen inguruko hitzaldia antolatu da gurasoei zuzenduta. Abenduaren 10ean, eguaztenean, izango da euskarazko hitzaldia eta hurrengo egunean, berriz, gaztelaniaz eskainiko du Iñaki Olaskoaga psikologoak bigarren saioa. Iñakik adierazi digunez, "jolasak haurraren nortasun orekatua bilatzeko aukera ematen du eta horregatik, helburu hezitzaileak izan behar dira kontutan jolasak aukeratzekoan".

Orain dela hilabete herrian izan zen Iñaki, "Arauk eta mugak" hitzaldia-ekin. Datorren astean eskainiko duen saioa ere, "dinamika pedagogiko horre-

tan kokatua dago". Gabonei begira gurasoendako aholku bat eskatu diogu Iñakiri: "haurren beharretara egokitzen diren jolasak izan daitezela aholkatuko nieke gurasoei; azken finean jolasak, sozializazio modu bat baitira".

Jostailuen erakusketa

Abenduaren 13 eta 14an, hitzaldiari jarraipena emateko, jostailuen erakusketa egongo da Udaletxeko areto nagusian. Txatxilipurdi talde arrasatearrak antolatuko du eta jostailu egokia hautatzen laguntzeko erakusketa izango da. Merkatuan dauden 80 bat jolas egongo dira, baina bakoitzari fitxa bat jarri zaio lantzen dituen arloak zeintzuk diren esanez; Txatxilipurdikoen asmoa, gurasoek jolas bat aukeratu aurretik euron buruari zenbait galdera egitea da.



25 kilo patata eta nahi adina saiheski

100 lagun elkartu ziren azaroaren 22an Gaztetxeko afarian. Patatak txorizoarekin, saiheskiak patata erreekin, sagardoa eta postrea afaltzeko eta, musika, txistea eta bertsoak afalosterako. Aspaldiko partez Antzuolako gazte gehienak gelditu ziren herrian, gaupasan.

Gaur, abenduak 5, 22:00etan John Travoltaren *ahalmena* ikusteko aukera izango dute zinera gerturatzen direnek: "Phenomenom" filmea eskainiko du Gazinemak. Domekan berriz, abenduak 7, "La llave mágica" ikusi ahal izango dute gazteenek 16:30etan. Datorren asteko eguakitzean saiorik egon ez arren domekan, abenduak 14, "Lago Ness" filmea jarriko dute zine aretoan 16:30etan. Abenduaren 19an berriz "La Roca", 22:30etan.

Kanpotarrak arituko dira herrian lanean

Abenduaren 1ean hasi eta lau hilabetez Lurkide enpresako langileak neurketan topografikoak egiten arituko dira herrian. Kaleetan ibiltzeaz gain, kasu batzuetan, ezinbestekoa izango da jabego pribatuetara sartzea lan hau egiteko, hala nola, zelaiak, ortuak, lorategiak...

Lurkidekoek lana ahalik eta hoberekin egin dezaten, teknikariei erreztasunak ematea eskatu nahi die Udalak herritarrei.

Olentzerorendako karten sariketa

Oraindik ez baduzu eskutizik idatzi, denboraz zabilta! Abenduaren 16a da Olentzerori kartak bidaltzeko azkenengo eguna eta horretarako liburutegian, liburudendan eta herriko eskolan ipinitako buzoiak erabili behar dira. Animatek, bestela oparirik gabe geldituko zara!

Mendira irteera

Astebukaera honetan Anetora joateko irteera bertan behera gelditu da elurragatik. Hala ere, datorren domekan, abenduak 14, Oizera irteera egingo dute Arrolakoek. Izena emateko, astelehenetan, abenduak 8, 19:30etatik aurrera Arrolako lokalean.



TXOMIN garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea, 8 ANTZUOLA
Tf. 78 70 77

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industrialako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

GAILUR

taberna eta
gozotegia



Buztinzuri, 13 ANTZUOLA Tf. 78 70 32

Independentzia 5.000 dukaten truke

“Livrança privilegioa, Erreguec emana Ançuolako erri nobleari, vergara urico iurisdicioan, sorçezco erria titulua-gaz”. 1629ko abenduaren 12an eman zion Felipe Gaztelako erregeak independentzia Antzuolako herriari. 1390ean borondatez sartu zen bezala, 1629an borondatez banatu zen Bergarako hiribildutik.

Gaztelako gerra askotan sartua zegoen XVII. mendean eta bere inperioa mantentzeko azpiegitura handia behar zuen. Tesuinguru honetan Gipuzkoako herri askok lortu zuten herri eskubidea. Hiri gutunak –herri eskubidea ematen zuten agiriak– inperioarendako dirua lortzeko modu bat ziren. Hori dela eta, Felipe Gaztelako erregeak Antzuolari hiri gutuna eskaintzea onartu zuen 5.000 dukaten truke; hiri gutunean esaten denez, “... eta nola orain Italian eta beste lecuetan aguertu jaacun guerra aldietaco escaini deustazuen ogueta bost ducat çilar vicunean, universitate orretaco auzo eta baserri bacoçeco, eta gainera vesteun ducat aldi berean aibat epetan pagaduric...”.

Independentziaren ondorioak

Hiri gutunak herriko karguak hautatzeko aukera eskaini zien antzuolarreri, “alcate arrunta eta erregidorea” hain zuzen ere. Urtero hautatzen ziren bi kargu horiek, baina urte batean alkatetza “plaçacoa” eta erregidorea “baserri auzoena” izaten zen eta hurrengo urtean alderantziz. Herri eskubideak Gi-

puzkoako Batzar Nagusietarako ordezkariak hautatzeko aukera ere ematen zion Antzuolari.

Banaketa nahia

Antzuolak 1390ean erabaki zuen Bergarako herriaren auzo izatea. Iñigo Ramirezek azaldu digunez, “garai haietan liskar ugari izaten ziren herrisketan eta Antzuolak beharrezkotzat jo zuen Bergarako hiribilduari gehitzea, erregearen babes izateko”. Baina 1539an Antzuolak eskatu zuen alardea –armazerbitzua egiteko era– Bergaran egin barik Antzuolan egitea, eta lortu égin


zuen. Iñigoren esanetan, “ordurarte Antzuolako alardea egiteko Bergarara joan behar izaten ziren, eta eskaera honek adierazten digu, nolabait, independentzia sentimendua orduantxetik datorrela”.

Herriko bandera



Independentzia eguna hautatu du udalak, orain arte alardean erabili den bandera herriko bandera bihurtzeko; hortaz, eguakitzean, abenduaren 12an, izango da ekintza ofiziala. Horretarako udalbatzar berezia egingo da, 1979tik gaur egunera arteko batzarkide guztiekin. Herriko banderaren eta hiri gutunaren kopia bana emango zaie. Ondoren Oinarin dantza taldearen emanaldia izango da eta kainoi tiroak jaurtiko dira.

Jatorrizko hiri gutuna gaztelaraz badago ere, Mila Eizmendi Eusko Jauriaritzako teknikariak garai horretako euskarara itzuli du; XVII. mendeko Amilletaren doktrina izan du irizpide.

■ ■ ■
 “Erreguçen dogu, eximidu, libradu eta atera daigula Ançuolako universitate bere baserriequin vergara urico iurisdiciotik...”
 ■ ■ ■



Herriko plaza 1930ean ateratako argazkian.



Bidea eginez

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentek bideratzen ditugu

Tailerra
 Uzarraga bidea, 10
 Tf. 78 71 78
Erakusketa
 Kalebarren, 1
 Tf. 78 71 79
 Tf. eta F. 76 64 73

Osasuna

Erditzearen ondorengo depresioa

- Zelako eragina dauka emakumeengan erditzearen ondorengo depresioak?

- Lehenik eta behin kontzeptuaren definizioa egin beharra dago, erditzearen ondoren hiru alterazio psikopatologiko ezagutzen baitira: erditzearen osteko tristura, erditzearen osteko depresioa eta, azkenik, erditzearen ondorengo psikosia. Ematen diren kasu gehienak erditzearen osteko tristuratzat jo daitezke, erditzearen ondorengo depresioaren %50ean ematen baita. Umorearen gorabeherak eta emozio-egoeraren aldakortasuna izaten dira: arrazoirik gabeko negarrak, loezina, buruko minak, gehiegizko bizitasuna, memoria falta eta sumingarritasuna. Erditzearen ondorengo depresio arin eta behin-behinekoa da eta lehen-dabiziko hamar egunetan agertzen da normalean.

- Zer esango zeniguke erditzearen ondorengo depresioaz?

- Hainbat estatistikaren arabera, bere eragina

%10ekoa da eta erditzearen ondorengo lehendabiziko lau hilabeteetan ematen da. Honetan ere loarekin arazoak izaten dira haurra elikatu eta gero. Emakumearen beraren elikadurarekin ere problemak sortzen dira (gehiegi edo gutxiegi jaten delako), sumingarritasuna eta depresioa agertzen dira, energia falta



JOSE RAMON SERRANO

(Ginekologoa)

eta, horren ondorioz, isolamendu soziala ere agertu daiteke. Jaioberriarekin interakzio txarra ematen da eta haurren eskakizunak modu okerrean ulertzen dira. Honetan tratamendu psikiatrikoa gomendatzen da.

- Azkenik, psikosia legoke.

“Erditzea gertatzeko ikastaroak oso baliogarriak dira egoera hauek prebenitzeko”



Kasu gehienak erditzearen osteko tristuratzat jotzen dira.

- Honen eragina oso baxua da (%0,1) baina desoreka psikiko larria dakar, psikosi eskizofrenikoa edota afektiboa eraginez. Egia esan oso arraroa da.

- Zeintzuk dira faktore eragileak?

- Era askotako faktoreak eman daitezke: demografikoak (ama emakume ezkongabea izatea edota lana galtzea, adibidez), psikosozialak (bikotearekin edota gurasoekin harreman txarra izatea, giza laguntzaren falta edota haurra negartia izatea), psikopatologikoak (hurdunaldian antsietatea izatea) edota faktore hormonalen eragina ere egon daiteke.

- Zein da jarraitu beharreko tratamendua?

- Kasu bakoitzean espezialista izango da terapia egokia jarriko duena: antidepressiboak, hormonak, bitaminak edota psikoterapia.

- Prebentzioa zela egin daiteke?

- Prebentzioa haurdunei informatzean eta bikotearen prestakuntzan ere oinarritzen da. Azken hauen laguntza inportantea da. Emaginek ere paper garrantzitsua dute eta erditzea gertatzeko ikastaroak oso baliogarriak dira. Egoera hauek lehenbailehen detektatzeak soluzio azkarragoa ekarriko luke.

Jose R. Fernandez

PORTAERA PSIKOLOGIAKO GABINETEA
Antsietatea, depresioa,
ikasketa eta portaera arazoak eta
informe perizialak

Ramon Maria Lili 2 behea
Tf. 76 59 39

**OILAGORRA
TABERNA**
Barrenkale, 21 BERGARA

KAFETEGIA

KAIKO

GOSARIAK ETA
AUKERAKO PINTXOAK

Goizeko 7:30etan irekitzen dugu


Zurradero 4, BERGARA

Zer deritzozu Gabonetan, batez beste, 90.000 pezeta gastatzen dugula dioen azterketari?




Clementa Arregi

Zifra altua dela uste dut. Egia da normalean baino bastante gehiago gastatzen dela, baina Gabonetan familiarekin gozatzea ondo dago, aprobe txatu egin behar da piskat.



Jose Ramon Arakistain

Disparate bat da diru kopuru hori. Gure familian behintzat ez dugu horrenbeste gastatzen, ezta pentsatu ere. Baina Gabonetan gastu dexente izaten da, bai.



Serafin Quintana

Gehiegizkoa da. Ez dut kalkulatorik egin, baina horren erdiarekin ere nahikoa izan daiteke. Gastuak egoten dira, baina askotan gehiegi pentsatzeke egiten dira erosketak.



Iñigo Manso

Niri asko iruditzen zait, ez dut uste kopuru hori gastatuko dudarik. Ez da boltsiko guztietarako zifra behintzat... Egia da gastu gehiago dagoela, baina horrenbeste...



Concepcion Agirre

Askok da, gu behintzat ez gara horra ailegatzen, gutxiagorekin ere ondo ibili daiteke Gabonetan, nahiz eta beste sasoi batzuetan baino gastu gehiago izan.



Consuelo Torrijo

Gehiegizkoa da. Opariak eta abar sartuko dira hor, jaten bakarrik ez baita horrenbeste gastatzen. Niri behintzat astakeria iruditzen zait.

Gabon hauetan eman za opari on batekin.



Neska gazte eta emakumeendako jantzi eta osagarriak



Irizar 1 Telefonoa: 76 20 03




Humanidade ikasketak

Azken bolada honetan sortu da bai sortu eztabaida galanta Humanidade arloko ikasketak direla eta. Espainiako gobernua, Hezkuntza Ministeritzak, gai honetan parte hartu ez ezik eraso gogorra jo ere egin du. Debate luzea litzateke guzti honen inguruko zehaztasunak agertzea, baina laburki bederen, Espainiako gobernuaren plana zertan den doakizue segidan.

"Unidad de la Patria" delako ideia oinarritzat hartuta, Madrilek ezarri nahi duena zera da, humanidade arloan, batez ere Historia eta Geografia arean, ikasgaiak berak jarri eta kontrolatzea. Hori bai, gutxiengo edo minimoak izango direla esandakoak, praktikan, gehieneko bezala sartuz.

Kontutan hartu behar da, Hezkuntza arloko transferentziak ematen hasi zirenean, Madril %55 finkatzeko eskubidearekin gelditu zela eta %45 Jauraritza. Hor dagoen aldea handia izanik ere, Madrilek puztu egin du beste sistema tranposo hau erabiliz: gizarte gaietan, ikastetxeko curriculum osatzeko 25 gai baziren orain arte, aurrerantzean 174 izango dira, horrela berak ipini ditzakeen gaien kopurua gehitu egiten delarik. Dekreto honen bitartez Madrilek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Espainiaren ikuspegi unitarioa txertatua nahi du. Ondorioz, "Humanidade" kontu honetaz baliatuz, Espainiako Ministeritzak gure ahalmenak murriztu nahi ditu: Hezkuntza Sailarenak eta ikastola eta eskola bakoitzarenak, hain zuzen. Guk geuk dugun eskubidea zapuztea, Euskal Herriari nortasuna galeraztea, da helburu nagusia. Humanidade arloan jakin badakigu, eztabaida egon badagoela baina ez Espainiako Ministeritzak markatzen duen bidetik.

Andres OSA "Sakona"



Jose Luis

Jose Luis Elkoro beste hogetabi lagunekin batera kartzelara sartu bihar ei dabe. Mutiko txikixak giñala ezagutu giñuan. Gu Uberara eskolara eta bera Vespa baten Elgetatik Bergarara lanera. Izotz galantakin be bai askotan; oindio goguan dauka gu haren hotz-arpegixa. Ez genkixen bere izenik. "Elgetako Mantunekua" zala edo. Gero, handik urte askora, Bergarako Alkate ikusi giñuan. Artian partiduak lurpian zeren, eta bera izan zan ikurriñaren legalizaziñua gestionau zebana. Sasoi hartan jaiio zan UNED be ezinezkoa izango zan Jose Luis barik. Frutu onak emon dittuen unibersidade bat, eta hobiak emon zeikiena, zenbait etxekaltek hondatu izan ez balebe.

Gero, lantegi moderno bat aurrera etaratzen, egunkari abertzale bat bultzaizen, herriko alkate berriro, HB izeneko proiektu politiko baten buru-belarri sartuta... ezagutu dogu. Beti apal eta serio, bere buruari inportantzia haundirik emon barik. Diferentziak diferentzia, esan geinke beste bergarar haundi bati errelebua hartu zotsala: Telesforo Monzoni.

Eta oiñ kartzelara sartu bihar ei dabe.

Historixarara begiratuta, askondako milagrua da zela irauñ daben Euskal Herrixak gaur arte. Zeltak, erromatarrak, bisigoduak, arabeak, frankoak... eta azkenengo mendeetan frantsek eta espaiñolak, danak ahalegindu die gure herrittasuna birrintzen era guztietako armekin. Eztabe konsegidu. Baiña milagrorik eztago. Batek pentsatzen dau beti egon diela Telesforo eta Jose Luis bezelako personak Euskal Herrixan, batzuk izendunak, gehixenak anonimuak, eta holakuei esker aillegau garela XXI. mendera; eta etorkizuna geuria dala.

Animo Jose Luis eta aupa hi! Gure herrixak, nahiz eta batzutan mokolo samarra emon, bajakik jente ona apreziatzen.

Juan Martin ELEXPURU

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79

EBAKI

Ileapaindegi mistoa.
Ireki berria.




EBAKI ileapaindegia,
Idoia Urbina
Artzamendi 1 behea
Tf. 76 56 85. Txanda eskatu.

Etapa berria, prezio berriak
Zatuz gu ezagutzera. Egin proba estilo berriekin.

Urtarrilaren 10erarte
200 PTako beherapena
zerbitzu guztietan.





■ **Gisatu bikaina**

Jose Antonio Imaz Urzelai eta Jose Luis Leturia Lasa bergararrek 2. saria lortu zuten zapatuan Donostian izandako **Gipuzkoako I. Haragi Gisatuaren lehiaketan**. Bertako okelaren kontsumoa bultzatzeko antolatutako lehiaketa honetan 13 bikotek hartu zuten parte eta bergarar ordezkarien aurretik **Oreretako Txintxarri elkartekoak** sailkatu ziren. Jose Luisek eta Jose Antoniok **trofeoa, gaztak, mermelada poteak eta txuleta batzuk** eskuratu zituzten sari gisa. Jose Antoniok Jose Luisen laguntza izan zuen gisatua

gertatzeko. Kipula, piper berde eta gorriak, berakatzta eta olioia sueztitu ondoren, irinarekin sartaian frijitutako haragia olio frijituan gertatu zuten eta, ikutu pertsonal modura ardo zuria, ardo beltza eta txokolate pittin bat ere jarri zuten. Ia ia argazkian usaindu daiteke...



■ **Gaztainerre jaia**

Domekan guztiz arrakastatsua gertatu zen **AEK Akulu Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak eta Jardun elkarteak antolatutako Gaztainerre eguna**. Arratsaldeko 7etatik aurrera **sagardoa eta gaztainak doan** banatu ziren Plazan eta herritar mordo bat hurbildu zen bertara. Eroskiko Kontsumitzaileen Elkarteak emandako **50 kilo gaztaina** erre ziren eta jendeak ia ia eskuetatik kentzen zizkieten antolatzaileei. Jardun elkarteko trikitilari taldekoek eta herriko abeslari talde batek alaitu zuten Gaztainerre eguna eta giroa primerakoa izan zen. "Gaztainak erre artean, gaztainak erre artean..."

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**
EUXEBIO II
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

IKUSBI
ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK
Irala, 5 ☎ 76 53 09



■ Ipuin kontaktak

“Hitzez hitz kontatutako orduen topaketak”

programaren barruan, **Oihulari Klown** taldeko **Maite Larreak** eta **Ray Buenok** ipuin kontaketa eskeini zuten aurreko ostegunean Pol-Polen. Oihulari Klownek, “**Trokolo Teatro**”



eta “**A la luz de las velas**” kolektiboekin batera, Euskal Herrian zehar **ipuin kontalarien zirkuitua** jarri du martxan. Jendez gainezka egon zen Pol-Pol taberna ostegunean eta Ray Buenok eta Maite Larreak ikusleak aho zabalik laga zituzten ipuinen magia eta indarrarekin. Argi dago istorio hauek entzuteko ez dagoela edaderik... Hurrengo ipuin kontaketa **abenduaren 18an** izango da Pol-Polen: Kamerungo **Inongo vi Makomek**, **Loli Fernandez** granadarrak eta **Asier Sagasta** gasteiztarrak “**Cuentos de todos los colores**” izenburuko ipuin kontaketa eskeiniko dute 19:30etatik aurrera. Adi beraz...

■ Kotxe berria

Bergarako Udaltzaingoak kotxe berria estreinatu zuen aurreko astean. Orain ekarritakoarekin, bi izango dira udaltzainek erabili ahal izango dituzten ibilgailuak, lehengo Opel Kadett Van modeloa (300.000 kilometrotik gora eginak ditu) eta **Opel Astra Caravan**



Merit 1.7 modelo berria. Kotxea 2.519.147 pezeta kostatu da eta joan zen astetik herriko kaleak patruilatzen ikusi dezakegu. Argazkian **Alfonso Alonso** udaltzainburua kotxe berriaren ondoan. Olentzero aurreratu egin da udaltzainen kasuan...

Zertan dihardute ba?



Jokin Etxaniz 27 urteko pilotariak parte hartuko du Binakako Pilota Txapelketan. Jokinen izena guztion ahotan izan da aste honetan, antolatzaileek zalantzak omen baitzituzten bergarar aurrelaria txapelketan sartzeko. Azkenean, Asegarcek baieztatu digunez, Jokin Etxaniz onenekin izango da eta Aitor Elkororekin bikotea osatuko du. Elkororo-Etxanizena bikote faboritoetako bat izango da. Zezeagak ere txapelketan hartuko du parte. Gaur goizean txapelketaren aurkezpena egitekoa zen Bilbon eta badirudi 9 bikote izango direla lehian abenduaren 13tik aurrera.

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29

☎ 76 22 90 - 76 26 75

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

'Kote' Mentxaka

36 urteko arrasatear honek 15 bat urte daramatza Jauja kirol dendan lanean. Kirolzale amorratua, ahal duen guztietan mendira joatea gustatzen zaio batez ere. Ezkonduta dago eta losu izeneko seme bat daukate.

- Zergatik kendu zenituzten jostailuak Jaujan?
- Arlo batean espezializatzearren.
- Txikitako jostailu bat?
- Mecanoa.
- Kirola egiteko ala ikusteko?
- Praktikatzeke beti.
- Taldekako kirola ala bakarkakoa?
- Lagunekin hobe.
- Kirol bat?
- Mendia.
- Gutxien gustatzen zaizuna?
- Ez dakit, denak gustatzen zaizkit.
- Kirola areto itxietan ala aire librean?
- Aire librean.
- Eskaladarako rokodromoa ala mendia?
- Mendia.
- Inguruko mendi bat?
- Buelta bat emateko, Udalaiz.
- Sasoi honetarako kirolik aiposena?
- Mendiko eskia beharbada.
- Kirolari bat?



“Ikusteko baino, kirolak praktikatzeke gustatzen zaizkit eta aire librean bada, askoz hobeto. Sasoi honetan mendiko eskia egitea oso ondo dago. Mendi bat? Udalaiz adibidez”

- Ez daukat bereziki jarraitzen dudarik.
- Kirol marka bat?
- Nike.
- Kirol aldizkaririk irakurtzen duzu?
- Bai, Desnivel eta Pirenaica.
- Jantzeko, txandala ala bakeroak?
- Bakeroak.
- Telebistaz ikusteko kirol bat?
- Izotz jauziak.
- Hobby bat, kirolaz aparte?
- Argazkilaritza.
- Paisaiak ala erretratuak?
- Paisaiak.
- Lanean irratia ala musika?
- Musika.
- Abeslari bat/musika talde bat?
- Barricada.
- Zure akats bat eta bertute bat?
- Akatsak denak eta ez dakit bertuterik daukadan...
- Zerk jartzen zaitu sutan?
- Jendeak ezagutzarik gabe berba egiteak.
- Animaliarik baduzu etxean?
- Bai, arrain bat. Nahi izanez gero, oparitu egingo dizut.
- Filme bat?
- Akziozkoak, arinak.
- Irakurritako azken liburua?
- “El mundo del hielo”, Jeff Lowena.
- Zer egingo duzu astebukaerako zubian?
- Pirinioetara, mendira joan.
- Edurra atsegin?
- Baaaii.

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

☎ 76 20 61

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu
Fraiskozuri plaza, 5 Tf. 76 41 50 BERGARA

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Martokon.
☎ 76 00 51.

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m².
☎ 76 11 89.

Garaje bikoitza alokairuan Torrekuan. ☎ 76 30 32.

Pisua alokairuan Bidekurutzeta 14an. ☎ 76 36 99.

Pisu eguzkitsua salgai Martiategin. ☎ 76 40 99.

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 63 10 (gauze).

Garajea salgai Martokon. ☎ 76 35 50.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauze).

Zubiaurren pisua osatzeko jendea behar da.
☎ 76 71 12.

Garajea salgai Masterrekan. ☎ 78 36 65 (20:00etatik 22:00etara deitu).

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 41 16.

Etxea alokairuan Antzuolan. ☎ 76 64 24.

Pisua salgai Antzuolan.
☎ 76 64 65 (12:00-13:30).

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

Garajea salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 45 60/51 45.

DENETARIK

Andreagai jantzia saltzen dut. ☎ 76 26 70.

Disko singleak erosiko nituzke. ☎ 52 65 77.

Suzuki GSX 600 F motorra egoera onean salgai.
☎ 76 25 61.

Karta txapelketaren final egunean txamarra bat azaldu zen Pertxan.

Opel Kadett kotxea salgai (SS-AC). ☎ 76 29 81.

Kanowey motorra saltzen dut. Egoera eta prezio onean. ☎ 76 24 57.

Haur baten txamarra koardroduna galdu da Frontoi inguruan. ☎ 76 17 42.

Vitus bizikleta egoera onean salgai. ☎ 76 08 21 (20:00etatik 22:00etara).

Belarritako bat topatu dut T. Aranzadin. ☎ 76 57 74.

Aprilia rally motorra (49 cc.) salgai. ☎ 76 62 24.

Botoiak forratzeko makina, kaja errejistradora eta hariendako armarioa erosiko nituzke. ☎ 85 09 18.

"Moncayo" karabana salgai. ☎ 76 38 26.

LANA

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 09.

Etxeko garbiketarako egiteko emakumea eskeintzen da. ☎ 76 38 00.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egiten ditu. ☎ 76 00 90.

Enpresaritza Zientzietako matematika irakaslea behar da. ☎ 76 38 28.

OHO eta DBH klaseak Antzuolan. ☎ 78 71 32.

Etxeko garbiketarako egingo nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

Mate klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72 (Nerea).

Helduak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke astebukaeran. ☎ 76 56 66.

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

Neska batek astebukaeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 56 66.

Administratibo lanerako titulodun neska eskeintzen da. ☎ 907 94 06 67.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 63.


Mate, fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. ☎ 76 33 26.

Kafe - Taberna • **BERGARA** • Pentsioa

Pintxoak, kopak, boiloak...

Egunero goizeko 7etatik 10ak arte zabalik
Bidekurutzeta, 34 Tf. 76 47 23



LAKET

gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxes: 76 20 29

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1



Berrigara Gida 98

Partikularrei:

Berrigara Gida 98 liburutxoak, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu aurren. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak**. Partikularren telefonoak Telefonickak 1995eko azaroan argitaratutako listinetik hartuko ditugu; harrezkero **telefono berria jarri baduzu, esan iezaguzu guk gidan ipin dezagun.**

Azkar ibili, azken egunak baitira.

BERRIGARA

Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRAK	23	10	30	15
2. ERROTAGAIN	22	9	37	12
3. PAGOMENDI	19	10	51	26
4. A ZE FLAXA ETXAGI	18	9	27	15
5. AZPEITXI JATETXEA	14	10	39	35
6. BAR CANALEJAS	14	10	32	33
7. ETXAGI	12	10	33	35
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	9	10	22	34
9. AGINASPI	9	10	26	52
10. ARLOTEAK/OILAGORRA	7	10	15	26
11. JAUJA OH ZEREZOS	7*	9	26	40
12. ORTZI	5	9	15	30

A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. EZINLEIKE	24	10	68	28
2. AGIRREBEÑA JATETXEA	24	10	53	21
3. MANTOU	22*	10	69	10
4. SHAKTALE	19	10	52	14
5. MOSKIS	16	10	34	31
6. ALDOKA MALDOKA	14	10	26	30
7. GANBARA ARI ARI	13*	10	24	24
8. MRW	13	10	34	37
9. INDARGORRI	11	10	31	34
10. POLIDEPORTIVO TABERNA	6	10	30	68
11. IGANDEKOAK	3*	10	31	55
12. KAIXO	0	10	11	111

B multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK	24	9	69	18
2. SLO	24	9	42	23
3. BAYER	18	9	34	26
4. AMOZKIBAR	16	9	31	29
5. AUTOBEREZI	16	9	41	44
6. JAKINA PT	12	10	38	34
7. UVE BIKOITZA	12	8	31	25
8. USOA	9	8	30	38
9. ERDIBITERRAK	5	9	26	38
10. TXPIRON	4	9	13	40
11. AMILOTX	1*	9	13	53

C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	24	10	39	24
2. FAC	24	9	52	19
3. LA JUVE	19	9	29	15
4. UFALA	15	9	34	27
5. MATXAKATEGI	15	9	24	29
6. ERI SIRIMIRI	13	9	27	28
7. BAR GANBARA	10	9	32	25
8. KOMANDO PIPERRAK	9	9	23	33
9. ETENGABE	7	9	14	32
10. LA PEÑA DML	6*	9	26	35
11. PATATUS	0*	9	23	56

* KARNETAK EZ ENTREGATZEARREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

Jokoz kanpo



Ion Aiatsui

UFALA

ZELA ZOAZTE TXAPELKETAN?

Ondo hasi ginen, baina arazo batzuk izan genituen antolatzaileekin eta ordutik partidu asko galdu ditugu.

ZERGATIK GALDU DITUZUE AZKENENGO PARTIDUAK?

Aurkakoak hobeak zirelako. Lehen mailatik jeitsi ginen arren, ez gara aste genuen bezain onak.

IGOTZEKO ESPERANTZARIK BADUZUE?

Bai, onenen multzoan jokatzeara espero dut.

ORAIN ARTE IKUSI DUZUN

TALDERIK ONENA?

Gure multzoko talderik onena Guadalest da. Talde serioa da.

ZUEN TALDEKO JOKALARIRIK ONENA?

Jabi Ibarra.

ZER HOBETU BEHAR DUZUE?

Taldean jokalaria asko gara eta oso zaila da jokalaria berberak elkartzea partiduetan. Astero jokalaria desberdinekin jokatzeko dugu eta horrela oso zaila da ondo jokatzeara.

TXAPELKETAREN ANTOLAKETAREKIN

POZIK ZAUDE?

Bai, urte askoan dabilta txapelketa antolatzen eta urtero-urtero hobetzen doa.

REALA UEFARAKO SAILKATUKO DA?

Bai.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Guardiola

ETA MUNDIALA ZEINEK IRABAZIKO DU?

Alemaniak.

EMAITZAK

BAR CANALEJAS-MONGATXURRAK	1-2
ORTZI-ARLOTEAK/OILAGORRA	4-4
BILDURBAREK OPEL/LAM-PAGOMENDI	1-3
AZPEITXI JATETXEA-ETXAGI	11-4
AGINASPI-ERROTAGAIN	1-11
MANITOU-INDARGORRI	6-0
POLIDEPORTIVO TABERNA-KAIXO	8-1
AGIRREBEÑA JATETXEA-IGANDEKOAK	7-2
GANBARA ARI ARI-SHAKTALE	3-1
EZINLEIKE-MOSKIS	3-0
MRW-ALDOKA MALDOKA	1-7
AMILOTX-ARTUSAMAK	0-20
ERDIBITERRAK-BAYER	1-5
SLO-AMOZKIBAR	4-3
AUTOBEREZI-JAKINA PT	4-3
KOMANDO PIPERRAK-PA PEÑA DML	5-1
UFALA-ETENGABE	10-0
BAR GANBARA-FAC	2-3
ERI-MATXAKATEGI	5-4
LA JUVE-GUADALEST	2-4

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

10:00: INDARGORRI-POLI. TABERNA • ERDIBITERRAK
11:00: AMILOTX-ERDIBITERRAK • AGIRREBEÑA JATETXEA
12:00: KAIXO-AGIRREBEÑA JATETXEA • AMILOTX

Domekan barruan

10:30: TXPIRON-USOA • MATXAKATEGI
11:30: MATXAKATEGI-LA JUVE • MOSKIS
12:30: MOSKIS-MRW • LA JUVE
16:00: ETXAGI-AGINASPI • A ZE FLAXA ETXAGI
17:00: A ZE FLAXA-JAUJA OH ZEREZOS • ARLOTEAK
18:00: ARLOTEAK-BILDURBAREK • JAUJA OH ZEREZOS
19:00: BAYER-SLO • BILDURBAREK OPEL/LAM

Astehelenean kanpoan

10:30: USOA-UVE BIKOITZA • PATATUS
11:30: PATATUS-KOMANDO PIPERRAK • ETENGABE
12:30: ETENGABE-BAR GANBARA • KOMANDO PIPERRAK
16:00: ERROTAGAIN-ORTZI • AZPEITXI JATETXEA
17:00: PAGOMENDI-AZPEITXI JATETXEA • BAR CANALEJAS
18:00: JAUJA OH ZEREZOS-BAR CANALEJAS • PAGOMENDI

OHARRA

ANTOLAKETA BATZORDEAK JAKINARAZI DU, FITXAKETAK EGITEKO EPEA ZABALIK DAGOELA URTE BUKAERARA ARTE.

TXINPARTAK

Herrien arteko olimpiadak

Deba Bailarako herrien arteko olimpiadan parte hartzeko epea abenduaren 19an bukatzen da. Bergaratik hiru taldek izango dute txapelketan aritzeko aukera eta taldeak 14 lagunek osatuak beharko dute izan. Txapelketa abenduaren 26tik 30era bitartean jokatu da eta talde bakoitzak 4.000 PTA ordaindu beharko ditu. Txapeldunak 100.000 PTA jasoko ditu.

9 bikote pala txapelketan

Joan zen larunbatean hasi zen Udalak antolatzen duen pala txapelketa. 9 bikotek parte hartuko dute eta partidua zapaturo 15:00etatik aurrera jokatu dira Osintxuko frontoian. Denek denek aurka jokatu dute eta lau onenek finalerdiak jokatu dituzte otsailaren 7an eta finala astebete beranduago.

Bergarako waterpolo taldea Euskadiko kopa jokatzeko

Urtebete talde barik izan ondoren aurten Bergara Igeri Elkartekoek waterpolo taldea atera dute. Urtarrilera arte kopa jokatzeko ari dira beste 8 talderekin batera eta 6. postuan daude sailkatuta.

Taldea Bergara, Legazpi eta Oñatiko 12 jokalaririk osatzen dute eta Oñatiko igerilekuan jokatzen dute. Zapatuan iluntzeko 20:00etan Gasteizko Menditxo taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak eta Gorka Gonzalez taldeko jokalaria adierazi digunez, *"partidua irabaztea espero dut azkenaldian nahiko ondo jokatzeko ari gara eta. Aurten jende berria sartu da taldean eta hori igartzeko da. Gainera urtebete jokatuta barik izan gara eta lehiaketari berriz martxa hartzea oso nekeza izaten da".*

Urtarrilean liga jokatzeko hasiko dira eta ordurako txapelketari neurria hartuta izango direla espero du Gonzalezek.



Herriko waterpolo jokalariek Oñatin jokatzen dituzte partidua.

Liga urtarriletik uda bitartearaino jokatuko da eta kopa hartutako esperientziarekin aurreko postuetan ibiltzea espero dute. Halere, aurkako taldeen maila ere kontutan hartu behar da eta Bergara Igeri Elkartekoek Askartza UPV, Askartza, Burgosko Castellae, Gasteizko Menditxo, Bilboko Ademar, Azpeitiko Iza-

rantz eta Getxoko Faduraaren aurka neurtu beharko dituzte indarrak. *"Aurten nahiko onak dira, baina kopa hartutako esperientziarekin hobeto ibiliko gara uste dut. Hasieran esperientzia faltak eta urtebete geldirik egoteak eragina izan du, baina azkenaldian askoz hobeto ari gara"* esan digu Gonzalezek.



Omenaldia eskainiko dio Udalak Aitor Zabaletari

Aitor Zabaletak Udalaren omenaldia jasoko du datorren asteburuan. Ostiralean, eguerdiko 12:30etan, Zabaleta plazan izango da herritarrei bere barketa erakusteko. Zapatuan, berriz, eguerdiko 12etan kotxe erakusketa izango da plazan eta ondoren Bergarako Hiribildu Agiria emango diote. Ondoren, bazkaria eskainiko diote. Zabaletak aurten hirugarren aldiz irabazi du Espainiako kotxeen mendi igoera eta omenaldiarekin San Juango gidariak egindako lan bikaina omendu nahi du Udalak.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Santo Tomas Lizeoa**
Infantilak.

Zapatua. 11:00. Ipintza.

◆ **Bergara-Usurbil**

Lehen mailako jubenilak.

Zapatua. 15:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Arrasate**

Lehen mailako kadeteak.

Zapatua. 17:15. Ipintza.

◆ **Bergara-Arrasate**

Bigarren mailako kadeteak.

Domeka. 11:00. Ipintza.

SASKIBALOAIA

◆ **Bolsos Bergara-S.T. Lizeoa**

Kadete mutilak.

Zapatua. 12:15. M. Lagundia.

◆ **Bolsos Bergara-Tolosa**

Junior mutilak.

Zapatua. 16:00. M. Lagundia.

◆ **Ganbara BKE-Eskoriatza**

Junior neskek.

Zapatua. 17:30. M. Lagundia.

◆ **Bolsos Bergara-Leioa**

Senior mutilak.

Zapatua. 19:00. Kiroldegia.

◆ **Bolsos Bergara-Arrasate**

Junior mutilak.

Astelehena. 10:30. M. Lag.

◆ **Ganbara BKE-Iraurgi**

Azpeitia

Junior neskek.

Astelehena. 12:00. M. Lag.

PILOTA

Profesionalak:

◆ **Tolosa III eta Santi**

Koka eta Balerdi

◆ **Etzaniz eta Zezeaga**

Eugí eta Errasti

Zapatua. 17:00.

Udal Pilotalekua.

Afizionatuak:

Kadeteak

◆ **Milikua-Murua**

◆ **Lamariano-Herran**

◆ **Larrañaga-Orgaz**

Seniorrak

◆ **Zabaleta II-Zabaleta III**

◆ **Aranzeta eta Gutierrez**

Samaniego eta Martin

Bergara mailako txapelketa.

Eguakitza. 22:00. Pilotalekua.

Ion Sanchez

Euskadiko futbol selekzioan

Ion Sanchez bergararra Eibarreko kadete mailako futbol taldean ari da jokatzeko. Denboraldi hasiera ikusgarria egin du, 12 partidutan 17 gol sartu ditu eta. Egiten ari den lan bikainari esker Euskadiko selekzioan jokatzeko entrenamenduetara joateko deitu diote.

- Zergatik joan zara Eibarrera?

- Maila hobean jokatzeko.

- Realaren eta Athleticen aurka jokatzeko aukera izan duzu. Zer moduz joan zaizu?

- Bien kontra galdu egin dugu. Jendea falta zaigu, baina igartzen da hobeak direla.

- Zer postutan jokatzeko duzu?

- Betidanik zelai erdian jokatu dut. Eibarren ere hor nabil, baina Bergaran baino aurrerago jokatzeko dut.

- 15 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin egindako astearteko entrenamendua zela joan zen?

- 25 lagun izan ginen eta Etxeberrian, Bizkaian, entrenatu ginen. Hortik datorren urtean hasiko den autonomien arteko txapelketa jokatzeko 17 jokalaritari hartuko dituzte. Datorren astean Donostian entrenatuko gara eta zorte pixka batekin espero dut hautatua izatea.

- Konpetentzia handia dago?

- Bai, baina zela talde bakoitzetik bakarrik 3 jo-

kalari aukeratu daitezkeen, ba aukera gehiago daude. Horrela, Athletic eta Realetik jokalarit gutxiago joan daitezke eta aukerak areagotu egiten dira.

- Gustora Eibarren?

- Bai, gustora. Gainera golak sartzen nabil. Hasierran beldur pixka bat neukan taldekideak ez nituelako ezagutzen eta postua hartzeko zail zegoen. Titular jokatzeko dut eta golak sartzen ere sartzen banabil. Lehenengo 3 partiduetan 10 gol sartu nituen eta orain 17 daramatzat.

- Gehien gustatzen zaizun jokalaria?

- Kiko eta Guardiola asko gustatzen zaizkit.

- Eibar eta Bergararen artean ezberdintasunik badago?

- Bai, Eibarren fisikoa gehiago lantzen da eta entrenamenduak ere beldur artifizialeko zelaian egiten ditugu.

- Klausularik baduzu?


- Ez, jokatzeko urteko kuota bat ordaintzen dut.

- Futboletik bizitzeko gustatuko litzaizuke?

- Bai, baina zaila da.

- Zerbait hobetzeko esaten dizute?

- Etxean korrika gehiago egin behar dudala esaten didate. Entrenatzaileek, berriz, ez didate ezer esaten.



Eibarren jokatzeko du eta hasierako hiru partiduetan 10 gol sartu ditu.

“Etxean korrika gehiago egin behar dudala esaten didate”



Argazkia: Marcial Moreno

Umore Ona abesbatza

Umore Ona abesbatza herriko abesbatzik zaharrenetakoa eta ospetsuenetakoa dugu. 1943an sortua, bakarka zein beste abesbatz eta musika taldeekin batera, bertako eta Euskal Herriko hainbat tokitan kantatzeaz gain, TVEko saio batean ere parte hartu zuen abesbatzak 1960an.

Argazkian Barrenkaleko Umore Ona elkartearen ikusi ditzakezue. 1968an ateratako argazkia da, taldearen 25. urteurrena ospatzeko egin zuten bazkari egunean.

Honako hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik hasita:

Salbador Olabarria, Ramon Elizgarai, Migel Mari Basterra, Sabin Zelaia, Bixente Okina, Jesus Berroia (zuzendaria), Jose Mari Gallastegi, Bittor Gallastegi, Martin Arana, Joxe Lizarralde, Jose Mari Juldain, Bixente Retegi, Gerardo Mondragon, Pantaleon Oregi eta Genaro Suinaga. Argazkian Roman Mujika falta da.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Tapizeriak

Moketak

Alfonbrak



Laster zabalduko dugu Kruz
Gallastegi 3an! ☎ 76 07 37

Eta orain

gazteendako, umeendako
eta ume jaioberriendako
altzariak

Santa. LUZIA eguna!



Gaspar jatetxea
Arrenkalea 31 Tf. 76 20 02



Ortzi erretegia
Angiozar auzoa Tf. 76 22 68



Pizinetako taberna
Agorrosin igerilekuak Tf. 76 53 55



Mirimiri jatetxea
Arrenkalea 3 Tf. 76 59 19



Tartufo jatetxea
San Juan auzoa Tf. 76 35 51



Txuringo jatetxea
Osintxu 14, Osintxu Tf. 76 48 63

Abenduaren 13an
gatozte lagunartean
giporirik
atseginenean
afaltzera!



Zabala jatetxea
Ibarra 14, Labegaraieta
Tf. 76 20 07 / 42 57



Zubiberri jatetxea
San Anton auzoa Tf. 76 30 24

Eskatu lekua lehenbailehen!

Hemen gara!



HONDA



ACCORD



CIVIC 5 atekoa



CIVIC 3 atekoa

M MENDIOLA



HONDA
AUTOMOBILAK

Araba etorbidea, ARRASATE Tf 79 00 11